

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Azaroaren 29an izango da Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Egutegia

Gogoratu, **azaroaren 27an, astelehena**, HH3tik DBH4ra bitarteko haurren egutegian **jai-eguna** dela, irakasleen eguna baita.



Azaroak 30eko greba deialdia

Datorren astean, azaroaren 30erako Greba Orokor Feministarako deialdia egin da gure gizartean. Udarregi Ikastolako langileen gehiengoa grebara batu da eta, beraz, egun horretan gobernutik jarritako irizpideek markaturiko gutxieneko zerbitzuak eskainiko dira Haur Eskolan nahiz Ikastolan. **Gobernuko jakinarazpena jaso bezain laster, informazioa partekatuko zaizue.**



Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2024ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



Prentsa-oharra

Hona hemen hezkuntza lege berriaren inguruan Ikastolen Elkartek plazaratutako [prentsa-oharra](#).



Neguko katalogoa

Urtero bezala, aurten ere Ikastolen Elkartek [Neguko katalogoa](#) argitaratu du eskaintza interesgarriekin. Eskaera egin nahi baduzue, usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz egin dezakezue. Neguko oporrak baino lehen jaso ahal izateko, abenduaren 4a baino lehen eskatu beharko da.



Zuberoako ikastolen aldeko jaia

Nafartarrak Kultur Taldeak Zuberoako Ikastolek 50 urte bete dituztela ospatzeko jai bat antolatu dute larunbat honetarako.

Goizean, zuzendariak eta DBHko ikasleek harrera egingo diete Zuberoako ordezkarietara eta arratsaldean, LH 5eko ikasleek musika emanaldian parte hartuko dute.

Batu ditzagun gure ahotsak!

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan milaka ahots behar ditugu, milaka grabazio-ordu euskaraz.

Zure ahotsa garrantzitsua da: ahots asko eta askotarikoak behar ditugu horretarako, **zurea ere bai**.

Guztion artean sortzen ari garen ahotsen datu-basea izango da.

Horretarako, sartu aplikazioan eta grabatu ahalik eta esaldi gehien. Oso erraza da.

Denon ohotsekin ekarpen polita egingo diogu gure hizkuntzaren eta kulturaren garapenari. Informazio gehigarria eta ahots-grabagailua: gaitu.eus helbidean



Eskolaz kanpoko kirolerako dirulaguntza

"Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol-egitasmoak garatzeko dirulaguntza"-ren "4. lerroa, eskolaz kanpoko kirol-jardueretan parte hartzea" eskatzeko epea abenduaren 1ean amaitzen dela jakinarazten dugu.

Hona hemen [Informazio guztia](#).

Eskaerak udaletxeko erregistroan presentzialki edo erregistro elektronikoki bidez aurkez daitezke.

Hauetara aurkeztu beharreko eranskinak: [2A eranskina](#), [2F eranskina](#) eta eskola kiroleko koordinatzailearen (edo izena emanda dagoen kirol elkartearen) agiria.

Edozein zalantza izanez gero, harremanetan jar zaitezke Libanarekin, Udaleko kirol arduradunarekin, kirola@usurbil.eus helbidean edo 943372498 telefono-zenbakian.



Neguko zinea

Datorren igandean, azaroak 26, 17:00etan, "Hopper, oilasko erbia" eskainiko da Sutegin. [Informazio gehiago...](#)



HAUR HEZKUNTZA

Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko paperezko poltsa bana ekarri behar dutela.



Pantailen erabilera egokiaren inguruko solasaldia

Haurrak txiki-txikiak direnetik, gurasook pantailekin dugun harremana ikusi eta ikasten dute. Oso garrantzitsua da gurasoak bere garapen kognitibo, emozional eta sozialean pantailak duten eraginaz jabetzea.

Horretarako, hitzaldi-solasaldi bat antolatuko dugu Miren Ros-ekin.

Data: Azaroak 29, asteazkena

Ordua: 17:00tan

Nori zuzendua: HH (0-6 urte) eta LH4 arteko gurasoei.

Lekua: jangelan.

Solasaldian:

- Hausnarketa bultzatuko dugu pantailen erabileraren inguruan eta helduok haiekin dugun harremanari erreparatuko diogu.
- Pertsonarengan eta bereziki haurrengan pantailak duten eragina ikusiko dugu, eta zientziak zer dioten azalduko dugu.
- Baliabideak emango ditugu hori guztia etxean nola kudea daitekeen ikasteko.
- Kontzientziazioa piztuko dugu: gure haurrek, txikitatik, teknologiarekin garatzen hasten diren harreman horretan gure arreta jarritz eta era osasuntsu batean bideratuz.
- Hitzaldiaren azken zatian, solasaldi irekia eskainiko dugu, gurasoek izan ditzaketen galdera edo kezkei erantzuteko eta baita bizipenak elkarbanatzeko ere.



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak LH3

LH 3-ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Pantailen erabilera egokiaren inguruko solasaldia

Haurrak txiki-txikiak direnetik, gurasook pantailekin dugun harremana ikusi eta ikasten dute. Oso garrantzitsua da gurasoak bere garapen kognitibo, emozional eta sozialean pantailek duten eraginaz jabetzea.

Horretarako, hitzaldi-solasaldi bat antolatuko dugu Miren Ros-ekin.

Data: Azaroak 29, asteazkena

Ordua: 17:00tan

Nori zuzendua: HH (0-6 urte) eta LH4arteko gurasoei.

Lekua: jangelan.

Solasaldian:

- Hausnarketa bultzatuko dugu pantailen erabileraren inguruan eta helduok haiekin dugun harremanari erreparatuko diogu.

Pertsonarengan eta bereziki haurrengan pantailek duten eragina ikusiko dugu, eta zientziak zer dioten azalduko dugu.

- Baliabideak emango ditugu hori guztia etxean nola kudeatu daitekeen ikasteko.
- Kontzientziazioa piztuko dugu: gure haurrek, txikitatik, teknologiarekin garatzen hasten diren harreman horretan gure arreta jarriaz eta era osasuntsu batean bideratuaz.
 - Hitzaldiaren azken zatian, solasaldi irekia eskainiko dugu, gurasoen izan ditzaketen galdera edo kezkei erantzuteko eta baita bizipenak elkarbanatzeko ere.



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteera

Datorren asteartean, azaroak 28 DBH2ko Ikusentzunekeo eta DBH4ko plastikako ikasleak Tabakalerara joango dira "Stop motion" tailerra egitera. Irteera goizekoa da baina 14:30etan itzuliko direnez bazkaria eramatea eskatzen da. Horrez gain MUGI txartela beharko dute trenerako.



Irteera-kobrantza DBH2

GAUR, DBH 2. mailako ikasleek **Ezki-Zerainera** egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **19,35 €** izango da. Hona hemen zehaztapenak:

- Autobusa: 15,35 €
- Igartubeiti baserrira sarrera: 2 €
- Zeraineko zerrategira sarrera: 2 €

